

Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala



Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco

2024ko Deialdia

Ikerketarako
Laguntzen
Oinarriak



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

Informazio orokorra

EFEOko ikerketarako laguntzen modalitateak

Ikerketa-proiektuetarako laguntzak

- Zenbatekoa
- Oinarriak, eskakizunak eta bateraezintasunak
- Laguntzen zenbatekoen xedea
- Laguntzen kudeaketa ekonomikoa
- Ikerketa-proiektuen ebaluazioa. Kalitate-irizpideak eta ebaluazio-prozesua

Nazioarteko egonaldietarako laguntzak

- Zenbatekoa
- Oinarriak, eskakizunak eta bateraezintasunak
- Ebaluazio-sistema

Kongresuetarako laguntzak

- Zenbatekoa
- Oinarriak, eskakizunak eta bateraezintasunak
- Ebaluazio-sistema

Ikerketarako laguntzen eskaerak bidaltzea

Eskaerak bidaltzeko eta ebazpena emateko epeak

Betebeharrak ez betetzearen ondoriozko zehapenak

Datu pertsonalen kudeaketa



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

Fisioterapeuten Elkargoei buruzko 1001/2002 Errege Dekretuaren 2. artikulua eta Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizial txit gorenaren estatutuak onesten dituen 12/03/12 Aginduaren 10.1.f(1) artikulua testuinguruan, lehiaketaren bidez araututako ikerketarako laguntza hauen asmoa da Euskadiko fisioterapeuta elkargokideen artean ikerketa sustatzea, bai ikerketa-proiektuak garatzeko bai ikerketari lotutako bestelako jarduerak gauzatzeko.

Dokumentu honek EFEOko Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeak diseinatutako eta proiektatutako hiru modalitateen lehiaketa bidezko deialdiko oinarriak jasotzen ditu, Gobernu Batzarrak (JGO_0142/2022) onetsitakoak eta Batzar Nagusiak 2022ko abenduaren 17an eginiko ohiko bilkuran (046/2022) berretsitakoak.

- Ikerketa-proiektuetarako laguntzak
- Nazioarteko egonaldietarako laguntzak
- Kongresuetarako laguntzak

INFORMAZIO OROKORRA

EFEOko Ikerketarako Laguntzen hiru modalitateak eksklusiboak dira EFEOko elkargokideen kolektiboarentzat. Nolanahi ere, ikerketa-taldeko kolaboratzaile gisa aurkeztu ahalko dira, halaber, edozein Fisioterapeuten Elkargo Ofizial edo Profesionalean erregistratuta dauden osasunaren arloko bestelako profesionalak, baita gainerako lanbideetako Espainiako elkargoetan edo bestelako nazioarteko erakunde ofizialetan erregistratuta dauden bestelako profesionalak ere. Baldintza gehigarri gisa, ezinbesteko eskakizuna izango da ikerketa-taldeko kideen ehuneko hirurogeita hamar, gutxienez, EFEOko elkargokideen errolda aktiboan erregistratuta egotea.

Ikerketarako laguntzak eskatzen dituzten edo ikerketa-taldeetako kide diren fisioterapeuta guztiek egunean izan beharko dituzte elkargoarekiko betebeharrak, eta ez dute indarreko zehapenik izango dagokion Elkargo Ofizialean edo Profesionalean. Deskribatutako egoeraren batean dauden kideen hautagaitzak ukatu egingo dira.

Elkargokide guztiek edozein laguntza-modalitatetan egin ahal izango dute hautagaitza. Hala ere, modalitate bakoitzean gehieneko puntuazioa eskuratuz gero, gehienez bi laguntza-mota emango zaizkio, hiru modalitateetan eskuratutako puntuaziorik altuena eta proiektuaren ezaugarriak aintzat hartuta.

Ekitateari eusteko, proposatutako laguntzen eta jasotako eskaeren arabera, laguntzen banaketa erakundeen arabera mugatuko da. Modalitate ezberdinetan laguntza bat baino gehiago eskatu duten erakunde edo ikerketa-taldeetako elkargokideek ezingo dute laguntzen % 50 baino gehiago jaso, betiere modalitate bakoitzean hautagaitza egin duen beste erakunde bat baldin badago eta ebaluazio-fasean gutxienezko puntuazioa gainditu baldin badu.

EFEOko Gobernu Batzarreko kideek, indarreko deialdian, ezingo dute ikerketa-laguntzetarako hautagaitzarik aurkeztu, modalitate batean ere.



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

EFEOko Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko (PIIB) arduradun batek kudeatuko du laguntzen eskaerak jasotzeko eta horiek ebaluatu eta esleitzeko prozesua. Horretarako, ebaluaziorako Batzorde Zientifiko bat eratuko da. Batzorde hori adierazitako PIIBeko kide arduradunak eta ikerketaren arloan adituak diren kanpoko figura ebaluatzaile batzuek osatuko dute. Kide horiek hautatzeko, ikerketaren arloan egin duten ibilbidea eta erakunde autonomiko, nazional eta/edo nazioartekoetan duten posizio akademikoa kontuan izango da. Era berean, ikuskatzaileen truke bat egin ahal izango da Estatuko beste Fisioterapeuten Elkargo batzuetako Batzorde Zientifikoaren artean. Kanpoko ikuskatzaile guztiek anonimotasuna mantenduko dute EFEOko Gobernu Batzarreko beste kideen eta elkargokideen aurrean.

Laguntzak esleitzeko azken erabakia behar bezala justifikatuta bidaliko dio EFEOko Gobernu Batzarrari PIIB-EFEOko arduradunak. Eta, esleipenarekin batera, aztertutako oinarritzko informazioa eta eginiko kanpo-ebaluazioen emaitzak ere bidaliko dizkio. Hori guztia egingo da ebaluazio-prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko.

Eskaerak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira. Behar bezala beteta ez dauden, eskatutako informazio guztia jasotzen ez duten, deialdi honen oinarrietara edo aurkezpen-formatura egokitzen ez diren eta/edo epez kanpo aurkezten diren eskaera guztiak ukatu egingo dira. Horrez gain, eskaeran eta memoria ekonomikoan aurkeztutako informazioa egiazkoa ez bada, zehapenak ezarriko dira (dokumentu honen amaieran dago informazioa).

EFEOko IKERKETARAKO LAGUNTZEN MODALITATEAK

Jarraian, EFEOko Ikerketarako Laguntzen hiru modalitateak definitzen dira:

1. IKERKETA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

ZENBATEKOA

Modalitate honetara bideratuko den zenbateko ekonomikoa 24.000 eurokoa da, zenbait proiektuen artean banatzeko. Zuzkidura hori aldatu daiteke aurkezten den eskaera kopuruaren, horien kalitate zientifikoaren eta horien aurrekontu-ezaugarrien arabera. Proiektu bakoitzak, gehienez, 8.000 euro jasoko ditu.

OINARRIAK, ESKAKIZUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK

- **Denborazko muga.** Eskaeran planteatutako proiektuak urtebeteko epea izango du gutxienez, eta baldintza hori kronograman islatu beharko da. Planteatutako proiektua iraupen luzeagoko beste proiektu baten parte bada, zehaztu beharko da proiektu handiaren zein aldirako, premiatarako edo eginkizunetarako eskatu den laguntza.
- **Etika Batzordea.** Ezinbesteko eskakizuna izango da ikerketa gauzatu nahi den zentroko Ikerkuntza Klinikoko Batzorde Etikoaren (IKBE) baimena aurkeztea. Halaber, Euskadiko Etika Batzordearen baimena ere aurkeztu beharko dute organismo horren onspen zehatza behar duen diseinu metodologikoa duten proiektuek. Proiektu multizentrikoetan (zeinetan 2 zentrok edo gehiagok parte hartzen duten),



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

zentro guztietako ikerketa bermatzen duen IKBE autonomiko edo nazionalaren edo zentro parte-hartzaile guztien banakako baimena aurkeztu beharko da. Salbuespen gisa, berrikuntzarekin, proiektu teknologikoen garapenarekin edo irakaskuntza-metodologiaren jarduerarekin zerikusia duten proiektuen kasuan, ez da IKBEaren onespena bidali beharko. Hala ere, ondo justifikatu beharko da proiektuan ez dela Etika Batzorderen baten onspena behar duen jarduerarik jasoko. Onspen-dokumentua lortu ezean, horren ordez, proiektua laguntza eskatzeko epea amaitu aurretik aurkeztu egin dela ziurtatzeko agiri bat aurkeztu ahal da, behin betiko ziurtagiria jasotakoan hura entregatzeko konpromisoarekin.

- **Parte hartzeko muga.** Elkargokide bakoitzak gehienez bi eskaera aurkeztu ahal izango ditu ikerketa-proiektuetarako laguntzen modalitate bati, baina soilik agertu ahal izango da ikertzaile nagusi gisa (IN, hemendik aurrera) horietako batean. Bestean, berriz, laguntzaile gisa aurkeztu beharko da. Era berean, elkargokide bakoitza ikerketa-proiektuetarako laguntzen bi eskaeretan soilik aurkeztu ahal izango da laguntzaile gisa.
- **Memoria.** Laguntza eman eta urtebetera, INak proiektuan eragindako gastuen eta lortutako emaitzen amaierako memoria tekniko bat aurkeztu beharko du.
- INa edozein laguntza-modalitate berriz aurkeztu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da EFEOko Batzarrak amaierako memoria tekniko hori jaso, aztertu eta prozesua amaitutzat jotzea. Horrenbestez, INa ezingo da ikerketa-laguntzen modalitate berdinerara aurkeztu urtero. Hala ere, eskakizun hori ez da oztopo izango beste bi laguntza-modalitateetan aurkeztu ahal izateko (nazioarteko egonaldiak eta kongresuetarako laguntzak).
- Batzorde Zientifikoko kideak, PIIB-EFEOko arduraduna salbu, laguntza bakar batera aurkeztu ahal izango dira IN edo laguntzaile gisa.
- Ez da intereseko gairik ezarriko.
- Ikerketa-proiektuetarako laguntza eman ondoren, nahitaezkoa izango da EFEO aipatu eta identifikatzea modalitate guztietako laguntzen onuradun diren proiektuei lotuta eginiko komunikazio eta argitalpen zientifiko guztietan.
- Laguntzaren emakidak berekin dakar ikerketa-taldearen aldetik aipamen txiki bat egiteko konpromisoa -finantzatutako proiektuari, egonaldiari edo lotutako argitalpen zientifikoari buruz- EFEOko Gobernu Batzarrak hala eskatuko balu, Elkarberrin edo horren ordezko elkargoaren argitalpenen batean argitaratzeko.
- Eskaera EFEOko web-orriaren inprimaki espezifikoko baten bidez bidaliko da, dagokion apartatuan adierazitako arauetara jarraituz.
- Ikerketa-proiektuetarako laguntzen esleipena 2024ko azaroaren 8an jakinaraziko da.

LAGUNTZEN ZENBATEKOEN XEDEA

Eskatutako zenbatekoa honetara bideratu ahal izango da:

- Zerbitzuak kontratatzearen ondoriozko kostuak. Proiektuan behar bezala justifikatu eta integratutako lotutako kanpoko zerbitzuak (analisi estatistikoen zerbitzuak, bekadunen lanordua, etab.) ordaindu ahal izango dira.
- Ikerketa gauzatzeko material inbentariagarri eta suntsikorra. Proiektua amaitu ondoren eta egoeragatik egokia bada, EFEOk material inbentariagarri hori erreklamatu ahal izango du prestakuntza- edo ikerketa-



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

xedeetarako erabiltzeko.

- Erabiliko diren ekipoen erabilerari eta mantentze-lanei lotutako gastuak.
- Egingo den ikerketarekin lotutako bidaia- eta egonaldi-gastuak.

Eskatutako zenbatekoa ezingo da honetara bideratu:

- Proiektua gauzaten ari den erakundearekin kontratu-harremana (funtzionarioa, estatutupekoa edo lan-kontratuduna) duten pertsonen zuzeneko kontratazioa.
- Argitalpen zientifikoak ordaintzeko laguntzak.
- Kongresuetara edo antzeko prestakuntza-jardunaldietara joateko inskripzioa, gastuak eta dietak.

LAGUNTZEN KUDEAKETA EKONOMIKOA

- **Kudeaketa eta komunikazioko arduradunaren figura.** INak bideratuko du laguntzaren kudeaketa ekonomikoa, INaren eta/edo erakundearen eta Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko arduradunaren, administrazioko langileen eta EFEOko Diruzaintzaren arteko komunikazio zuzenaren bitartez.
- **Gastuen aurreikuspena.** Proiektatutako gastu guztiak behar bezala identifikatu behar dira eskaeraren memoria ekonomikoan.
- **Gastuen akreditazioa.** Gastuen amaierako zerrenda proiektuaren amaierako memoria teknikoan justifikatu eta islatu beharko da, behar bezala jaulkitako dagozkion fakturekin batera.

IKERKETA-PROIEKTUEN EBALUAZIOA. KALITATE-IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO-PROZESUA

Ebaluazio-sistema honako kalitate-irizpide eta ebaluazio-prozesuen arabera izango da:

- Kalitate-irizpideak ikerketa-proiektuaren diseinu metodologiko motaren arabera ezarriko dira. Ikerketa mota bakoitzeko baremoa dokumentu honen eranskinetan dago jasota, eta Elkargoaren web-orrian ere argitaratu dira.
- Deliberazio-prozesuan jarraitzeko, eskaerek eman daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 65 jaso beharko dituzte.
- Kanpoko ikuskatzaileen taldeko bi kidek eskaera guztiak aztertuko dituzte eta puntuazio independente bat emango diete, ezarritako baremo komunaren arabera. Puntuazio horren eta ikuskatzaileen taldeko gainerako kideen puntuazioaren artean % 10 baino alde handiagoa ez badago, eskaera hurrengo fasera igaroko da. Aitzitik, emandako puntuazioak ebaluazioen arteko diferentziaren % 10 gainditzen badu, PIIB-EFEOko arduradunaren esku geratuko litzateke behin betiko ebazpena.
- PIIB-EFEOko arduradunak eskaera guztiak aztertu eta puntuatuko ditu. Hala ere, haren puntuazioak ez du ondorerik izango, salbu eta ikuskatzaileen artean adostasunik ez dagoen ebaluazio-prozesuetan.
- Berdinketa gertatzen bada, azken ebazpena PIIB-EFEOko arduradunak erabakiko du, eta hartutako erabakiaren berri eman beharko dio EFEOko Gobernu Batzarrari.
- Diziplina anitzeko taldeak positiboki baloratuko dira, betiere taldea osatzen duten pertsonen % 70 fisioterapeutak badira.



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

- Positiboki baloratuko dira, halaber, zentro edo erakunde ezberdinetako ikertzaileak dituzten proiektu multizentrikoak.
- Ikertzaileen kopuruak eta horien ikerketa-proiektuarekiko dedikazioak nahikoak izan beharko dute -neurria gainditu gabe-, proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko.
- Positiboki baloratuko da genero-ikuspegia eta berdintasuna aintzat hartzea ikerketa-taldeko kideen artean.
- Positiboki baloratuko da taldeek eta proiektuek aurretik bekak jaso ez izana.
- INak eta/edo laguntzaileek proiektua gauzatzeko eskuragarri duten edo aurretik eskatu duten finantzaketa aztertuko da.

2. NAZIOARTEKO EGONALDIETARAKO LAGUNTZAK

ZENBATEKOA

Gehienez bi laguntzen artean banatuko diren 1.000 euro emango dira elkargokidearen bidaia- eta/edo egonaldi-gastuak ordaintzeko nazioarteko zentroetan edo ikerketa-taldeetan. Deialdi berdinean eskaera bakarra jasotzen bada, EFEOko Gobernu Batzarrak eskaera horri proiektatutako zenbateko osoa ematea azter dezake, baldin eta egonaldiaren ezaugarriek eta baldintzek justifikatzen badute.

OINARRIAK, ESKAKIZUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK

- Egonaldiaren gutxieneko denbora 15 egunekoa izan beharko da eta 2024ko ikerketarako laguntzak argitaratu eta 2025eko maiatzaren 1a bitartean egin beharko da.
- Egonaldia amaitu eta 15 egun igaro ondoren, onuradunak lortutako emaitzekin amaierako memoria labur bat bidali beharko dio EFEOri.
- Laguntza hau jasotzean, beharrezkoa izan daiteke Elkarberrin edo elkargoaren ordezkari argitalpenen batean argitaratzeko aipamen labur bat bidaltzea (finantzatutako proiektuari, egonaldiari edo argitalpen zientifikoari buruzkoa).
- Eskaera EFEOko web-orrian dagoen inprimaki espezifikoen bidez aurkeztu behar da eta dagokion atalean adierazitako arauak errespetatu.

EBALUAZIO-SISTEMA

Batzorde Zientifikoak ebaluazioa egiteko honako kontsiderazio hauek hartuko ditu kontuan:

- Ikertzailearen Curriculum Vitae. Bertan adierazitako datuak modu frogagarrian egiaztatu beharko dira.
- Harrera-zentroan garatuko den ikerketa-planaren kalitate metodologikoari eta originaltasunari buruzko irizpideak.
- Harrera-zentroaren edo erakundearen onarpen-gutunaren akreditazioa.
- Ikertzaile nagusiaren eta bere taldearen esperientzia harrera-zentroan.
- Egonaldirako aurreikusitako emaitzak.
- Positiboki baloratuko da aurretik dirulaguntzarik jaso ez izana.



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

3. KONGRESUETARAKO LAGUNTZAK

ZENBATEKOA

Laguntzaren zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da eta jasotzen diren eskakizunen ezaugarrien eta kopuruaren arabera banatuko da. Kongresu nazionalera eta nazioartekoetara (ahozko komunikazioa edo horma-irudiaren aurkezpena) joatearekin lotutako jarduera zientifikoak finantzatuko dira, baldin eta 2024ko gainerako aldiari (oinarri hauek argitaratu ondoren) eta 2025 urte osoan egiten badira.

OINARRIAK, ESKAKIZUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK

- Dagokion kongresura bidalitako abstract bakarreko lehen egileari bakarrik finantzatuko zaio, baldin eta kongresuan izena eman duen egilearekin bat badator.
- Lehen egile bakoitzeko eskaera bakarra bidaliko da. Eskaera bakar horretan lehen egile bakoitzeko gehienez hiru abstract gehitu ahal izango dira.
- Elkargokide bakoitzak gehienez kongresuetarako laguntza bakarra eskatu ahal izango du, eskaera bakar horretan bidalitako abstract kopurua kontuan hartu gabe.
- Beharrezkoa izango da abstract-a dagokion kongresuan aurkeztu izana egiaztatzen duen frogagiria aurkeztea, kongresuetarako laguntza horretarako eskaera bidali aurretik. Kongresuaren Batzorde Zientifikoak onartu izana positiboki baloratuko da, baina ez da beharrezkoa izango laguntza emateko.
- Izen-ematearen gastuak bidali beharko dira. Izen-ematea dagoeneko ordaindu bada, ordainketaren egiaztatzea bidaliko da.
- EFEOko Gobernu Batzarreko kideek abstract-aren egilekide gisa ere parte hartu ahal izango dute, baina ezingo dituzte kongresuetarako laguntzak jaso.
- Kongresuaren ondoren, elkargokideak kongresuan izandako esperientziaren deskribapena bidali beharko du Elkarberri edo elkargoaren ordezkari argitalpenean argitaratzeko.
- Kongresuetarako laguntza ematen bada, onuradunak EFEO aipatu beharko du abstract horren ondorioz sor daitezkeen komunikazio eta argitalpen zientifiko guztietan.
- Jasotzen den eskaera kopuruaren arabera, eskatutako zenbatekoa kongresuetarako izen-ematearen kostuak eta/edo bidaiaren kostuak (hegazkin-txartelei edo norberaren autoan egindako bidaien kilometro-kopuruari dagokienez) finantzatzeko bakarrik erabili ahal izango da.
- Ez dira finantzatuko ostatuak, elikadurak edo garraioak (garraio publikoa edo pribatua) eragindako gastuak eta dietak.
- Finantzarriak diren gastuak 2024ko abenduaren 31 baino lehen ordaindu beharko dira.
- Eskaera EFEOko web-orrian dagoen inprimaki espezifikoaren bidez aurkeztu behar da eta dagokion atalean adierazitako arauak errespetatuz.

EBALUAZIO-SISTEMA

- Ez da interes-gairik ezarriko.
- Gobernu Batzarreko kideek kongresuetarako laguntza ematearen egokitasunaren inguruan eztabaidatuko dute.



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

- Positiboki baloratuko dira nazioarteko prestigiozko eta jarduera-zientifiko handiko kongresuak, baita fisioterapiaren hurbilekoak direnak ere.
- Positiboki baloratuko dira disziplina anitzeko taldeak, beti ere taldekideen % 70 fisioterapeutak badira.
- Positiboki baloratuko da abstract-eko egilekideen gehiengoa EFEOko elkargokidea izatea.
- Genero-ikuspegia eta berdintasuna kontuan hartuko dira.
- Erakunde zientifikoek laguntzak ekitatez banatzen dituztela zainduko da.
- Negatiboki baloratuko da aurreko deialdietan EFEOko ikerketa-laguntzen bat jaso izana.

IKERKETARAKO LAGUNTZEN ESKAERAK BIDALTZEA

Eskaerak EFEOko web-orritik bakarrik izapidetuko dira. Bertan, Google Forms inprimakiak argitaratuko dira eta horien bidez ikertzaile nagusiaren datuak jasoko dira laguntza-modalitate bakoitzean. Inprimakiaren amaieran, laguntza-modalitate bakoitzari dagozkion dokumentuak atxiki ahal izango dira. Horretarako, Google Forms-era Gmail-ekin lotutako helbide batetik sartu beharko da.

Inprimakian atxikitutako dokumentuak PDF formatuan igo beharko dira eta honako kontsiderazio hauek bete beharko ditu:

“Ikerketa proiektuetarako laguntzak” modalitatean:

Bi dokumentu atxiki beharko dira:

1. Eskaeraren dokumentua:

Eskaeraren dokumentuaren eredia web-orrian eskuragarri egongo da.

PDFaren izena: AYUPROINV_DOCSOLI_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau izango da: AYUPROIN_DOCSOLI_AIT_2024

2. Curriculum Vitae guztiak dituen dokumentua

Ikertzaileen Curriculum Vitae guztiak dokumentu bakar batean bilduta aurkeztu beharko dira, lehenengoa ikertzaile nagusiaren CV laburra izango da. CVaren formatua Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Agentziaren CV labur normalizatua izango da laguntza-modalitate guztietan.

PDFren izena: AYUPROINV_CVA_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau izango da: AYUPROIN_CVA_AIT_2024

“Nazioarteko egonaldietarako laguntzak” modalitatean:

Laguntza-modalitate honetan lau dokumentu atxiki beharko dira; Elkargoaren web-orrian ez da eredurik argitaratuko. Lau dokumentuek honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte eta honako gidalerro hauek



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

errespetatu:

1. Honako atal hauek dituen ikerketa-plana (gehienez 2 orrialde):

- Proiektuaren izenburua
- Egonaldiaren iraupena
- Proiektuaren memoria: testuinguruan jartzea, berritasuna eta garrantzia, helburuak, lanerako plana eta egonaldirako aurreikusitako emaitzak.

Formatua: Letra-mota Calibri, 11, lerroarte 1,5.

PDFaren izena: AYUESTINT_PLAN_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau izango da: AYUESTINT_PLAN_AIT_2024

2. Harrera-zentroaren onarpen-gutuna:

PDFren izena: AYUESTINT_CARTA_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau izango da: AYUESTINT_CARTA_AIT_2024

3. Ikertzaile nagusiaren eta harrera-zentroaren esperientzia (gehienez 2 orrialde):

PDFren izena: AYUESTINT_EXPIP_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau izango da: AYUESTINT_EXPIP_AIT_2024

4. CV laburra:

CV-aren formatua Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Agentziaren CV labur normalizatua izango da laguntza-modalitate guztietan.

Fitxategiaren izena: AYUESTINT_CVA_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau izango da: AYUESTINT_CVA_AIT_2024

“Kongresuetarako laguntzak” modalitatean:

Eskera bakoitzeko dokumentu bakarra atxikiko da. Lehenengo orrialdea abstract-a bidali izanaren frogagiria izango da. Eskaeran abstract bat baino gehiago atxikiz gero, bidali diren abstract adina orrialde gehituko dira. Ondoren, halakorik balego, kongresuak abstract-a onartu izanaren ziurtagiria atxikiko da. Azkenik, kongresuaren kostuaren edo, ordainketa dagoeneko egin izanez gero, ordainagiria atxikituko da.

Fitxategiaren izena: AYUCON_IKERTZAILE NAGUSIAREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

Adibidez: Ikertzaile nagusia Alaitz Ibarluzea Torres bada, fitxategiaren izena honako hau



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

izango da: AYUCON_AIT_2024

ESKAERAK BIDALTZEKO ETA EBAZPENA EMATEKO EPEAK

Laguntzaren arabera eskaerak bidaltzeko eta ebazpena emateko epeak ezberdinak dira.

Ikerketa-proiektuetarako laguntzak:

- Eskaerak jasotzeko epearen hasiera: 2024ko martxoaren 11
- Eskaerak jasotzeko epemuga: 2024ko uztailaren 1a 15:00etan (penintsulako ordua)
- Laguntzaren behin-behineko ebazpena: 2024ko urria
- Behin-behineko ebazpena argitaratu eta 5 egun balioduneko epea zabalduko da erreklamazioak aurkezteko.
- Behin betiko ebazpena: 2024ko azaroaren 8a

Nazioarteko egonaldiatarako laguntzak

- Eskaerak jasotzeko epearen hasiera: 2024ko martxoaren 11
- Eskaerak jasotzeko epemuga: 2024ko irailaren 30a 15:00etan (penintsulako ordua)
- Laguntzaren behin-behineko ebazpena: 2024ko urria
- Behin-behineko ebazpena argitaratu eta 5 egun balioduneko epea zabalduko da erreklamazioak aurkezteko.
- Behin betiko ebazpena: 2024ko azaroaren 8a

Kongresuetarako laguntzak

- Eskaerak jasotzeko epearen hasiera: 2024ko martxoaren 11
- Eskaerak jasotzeko epemuga: 2024ko irailaren 30a 15:00etan (penintsulako ordua)
- Laguntzaren behin-behineko ebazpena: 2024ko urria
- Behin-behineko ebazpena argitaratu eta 5 egun balioduneko epea zabalduko da erreklamazioak aurkezteko.
- Behin betiko ebazpena: 2024ko azaroaren 8a

BETEBEHARRAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ZEHAPENAK

Dagozkion ondorio deontologikoak eta EFEOri eragindako era guztietako kalte-galeren ordain osoa alde batera utzi gabe, ikerketa-talde osoa zigortuko da EFEOko laguntza berrien deialdian parte hartzeko 5 urteko desgaitzarenekin, honako arrazoi hauengatik:

- Laguntza-modalitatearen baten eskaeran eta aurkeztu beharreko memorietan emandako informazioa egiazkoa ez izatea.
- Finantzatutako proiektuak edo egonaldiak sortutako argitalpen eta aurkezpen zientifikoetan EFEOko babesletza ez jasotzea.



Ikerketarako Laguntzen Oinarriak

2024ko Deialdia

Ikerketa-proiektua edo egonaldia bukatzean ez bada aurkeztu amaierako memoria teknikoa, Batzorde Zientifikoak ikertzaile nagusi gisa identifikatutako pertsonari edo laguntzaren onuradunari idatzi bat bidaliko dio dokumentu hori eskatzeko. Eskatutakoa astebeteko epean aurkeztu ez bada, ikertzaile nagusi gisa identifikatutako pertsonak edo laguntzaren onuradunak jasotako laguntza osoaren zenbatekoa itzultzeko beharra bere gain hartuko du. Bidalitako memoria teknikoa ez badator bat finantzatutako proiektuaren edo egonaldiaren eskaerarekin, beka itzultzeko zehapena aplikatuko da. Emandako funtsak itzultzen ez badira, laguntza berrien deialdian parte hartzeko desgaikuntza 20 urtekoa izango da.

DATU PERTSONALEN KUDEAKETA

Jasotako datu guztiak laguntzetan parte hartzeko bilduko dira, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta hura garatzen duten gainerako arauetan xedatutakoaren arabera tratatuko dira. Tratamenduaren oinarri juridikoa da baimena ematea ikerketarako laguntza honen deialdirako zure eskaera izapidetzeko. Datu horien tratamenduaren erantzukizuna EFEOrena da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen aurka egiteko edo tratamendua mugatzeko eskubidea erabil dezakezu. Horretarako, eskaera posta elektronikoz (cofpv@cofpv.org) edo gure egoitzara (Ibarrekolanda kalea, 15 beheko solairua, 48015 Bilbo (Bizkaia)) bidal dezakezu.

Bibon, 2024ko martxoaren 4an

¹AGINDUA, 2012ko martxoaren 12koa, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoaren estatutuen aldaketa onartzen duena.

10.1.f artikulua_ Etengabeko prestakuntzarako ekintzak prestatzea, hitzaldi, mintegi eta jardunaldien bitartez; aldizkariak, liburuxkak eta zirkularrak argitaratzea; eta, oro har, lanbidea teknika, zientzia eta humanistikaren alorrean hobetzen lagunduko duten baliabideak martxan jartzea.